

Tolosa-ren ixtoria

Zeruko Argia, 381. zk., 1970-06-21: 28.

(Monografía histórica de la villa de Tolosa, de *Federico de Zabala Garmendia Larrañaga*; Donostiko Aurrezki-Kutzak eratutako "Pueblos de Guipúzcoa" sariketa irabazia; 120 orr. Gráficas Izarrak, Donostia)

"Zertarako ikasten dugu ixtoria?", galdetu zion bein bere buruari Arnold Toynbee-k ("El valor y la utilidad de la historia") eta beste gaur askoren artean bererantzun zion: alegia, ixtoria izandu dala askotan lo-zorroan dagoan erri-izatearen kontsientsi zirikatzaile.

Eta alaxe da noski.

Gazte batzuek ala diotela ba dirudi ere, *gure mundua ez da gaur* ari ez jeolojian, ez gizon-sortzean eta ezta erlijioan ere, orain dala milloika urteak dirala baizik; eta, zahar batzuek ala diotela ba dirudi ere, *mundu hau ez da gaur bukatuko*. Guetako bakoitza mundu honetako bidari igezkor bat besterik ez da.

Gaurko gizon eta politikaren jeografia ere ez da gaur lehen-aldia zabaldua izan, eta ez da gaur bukatuko dan zerbait ere; gizonak, eta egunero, aldatzen dituanak dira hoiek. Ala, gure erria nondik nora etorri dan jakiteak gaurko bidari geranoi ematen digu alako ezagutze, identifikazio bat, eta emen konturatzen gera gu ez gerala *gu* bakarrik, *aurrekoak eta gu* baizik; eta oraindik gehiago: *aurrekoak, gu eta gure ondoren datozenak* gurean sentitzen ditugunean izango gera egitazko erria.

Gero, gizonak bere neurria ba du.

Gizonak ez du milla kilometrora ikusten, eta gutxiago *ezagutzen*; eskuz (ezta Urtainek ere!) ez ditu milla kilo jasotzen; eta ezin ditu milloi bat pertsona bakarka eta danak batean maitatu. Ala, galga honek gizona bere izatearen neurrira, bere errira ta familira jeixten du; beharko. Mando honetakoa da, ta mundua telebistez ikusten eta makinez pixuak jasotzen eta gizatasunez (eta gure artean kristautasunez) ahaleginduko da gizona pertsonak milloika maitatzen, baiña guetako bakoitzak egunero dituan esperientziak gure nahi-ta-nahi-ez-ko neurrira ekarriko gaitu beti: bixta eta indarra eta maitasuna urri baitira gizonaren begi, soin-giar eta buru-biotzean.

Neurri hau jakingarria da.

Neurri nabarmen honek gogora asten dio burua duan gizonari gizon-neurri hau ezin dugula gutxi-etsi, eta ezta errex desapiatu ere. Munduan, eta gizon-neurri hoiek mugatutako munduan bizi gerala konturatu behar dugu, eta ez asieratik, eta ezta bukaeraraño ere; noski, gizonak ba du espiritu bat, eta gora-bide bat ba du nonbait, ikusten ba du beintzat, bere kontsientsian-edo, baiñan urrutiko ta askotan ulerkaitz egiten zaigun oiñarri hoiek utzi gabe ba dugula gure artean elkar bizi izateko beste neurri batzuen ezagueraren beharra. Ta, ala, euskotarrok ba dugula aspalditik gure arteko zuzendu behar dugun bizi-korapillo pranko, eta Tolosarrak ere bai, naiz eta

mundo osoan saillez-sail txikia izan, ba dutela bere arteko gizon-neurri honetako ixtori jakingarri bat.

Eta ara Tolosara iritxi.

Ixtori-liburu honen sarreran egilleak ondo dioten bezela: ixtoria, gizonak lur-zati batean izan duan egintza edoizakeraren ikaspena da. Eta izakera hau bere kultura da. Egilleak kultura politikoa eta uri-biurtzekoa eta militarra, ekonomikoa, gizartekoa eta erlijioari, elertiarri, erti-lanari, jakite-araueri, irakas-bideeri, kiroleri eta jaiari dagokienak aitatzen dituzte; eta alaxe da kultura, zati asko-askotan ebaki liteken gizon-jakintza.

Ondo eta sakon billatu eta esandako asko dago liburu honetan.

Tolosari erri bezela gutxienez bi bereizgarrik eman omen diote bere sillua: 1) Naparroaren muga urbil izatea, eta 2) Iru ibai-gurutzean egoteak. Lenengoak eraman zuan Tolosa guda-erri bat izatera, eta bigarrenak eman zizkion Gipuzko osoko barru-erdia izateko ur-bideak, eta ur-bideen ertzetik mendi tarteko lur-bideak egiteko era ere.

Donostia kenduta, Gipuzkoako erriak (*villak*) XIII-garren gizaldia ezkerro sortuak omen dira; askotan gudal sor-araziak; orduko gure erritarrak nolabait elkar egin behar baizuten defenditzeko. Orduko egoeretan maiz gerta ohi zan bezela. Gipuzkoak eta bere interesak alaxe egintzen zietela uste zutelako-edo, Naparroko erregea utzi eta Kastillakoaren babesean jarri zan; alaxe geratu zan Tolosa napar-atean, ate-zain bezelatsu, eta 1256-an Alfonso X-rrenak (El Sabio esaten ziotenak) eman zion Tolosari bere legezko sortzea. Jakiña da, noski, honen aurretik orain Tolosa deitzen diogunean (lehen Urkizu, Iurre, Uzturre ta Monteskue mendi eta egatzak, eta orduan Berasibia deitzen zioten tokian), emen bizi ziranak, ba dituztela idatzi-gabeko legeak eta elkarrekin bizitzeko bere oituerak, baiñan ementxe asten da idatzia dagoan Tolosaren ixtoria.

Garai artako tolosarrak ez ziran gozoak.

Erregeak biltzera bialduta iritxi omen zan 1463-an Gaon izeneko dirubatzaille bat orrirra; arek (eta erregeak) eskatzen zuan dirurik ez omen zuten tolosarrak zertarako ordaindu beharrik, eta Gipuzkoako Fueroen babesean gizona antxe il omen zuten.

San Migel egunean aukeratzen omen ziran alkatea ta beste bost rejidore, eta ez gaur bezela, orrelaxe baizik: Elektore guzien izenak banan-banako txarteletan kutxa batean sartzen ziran; beste kutxa batean beste orrenbeste txartel, baiñan sei ez beste guziak ezer idatzi gabe; eta sei hoietako bakoitzetan idazten zuten: "alkatea". Ume batek ateratzen zuan paper bat kutxa batetikan, eta irakurtzen eta idazten ez zekian gizon batek bestetik, biak denbora batean. "Alkatea" izeneko txartelarekin batera eokitzen zan izena izaten zuan aukeratutakoa. Ez zan gaur nahi genukena, baiñan ezta gaur daukaguna ere. Ala, suertean eokitzen ziran sei gizon hoiek gela batean itxi (han zeuden bitartean *apaizen batekin* eta egiten zuanari iru milla marabedi multa ezartzen zioten!) eta aukeratzen zuten bere artean alkatea. Alkate hau ezin zan bere mandatua bukatu ta sei urte arte berriz aukeratua izan; eta erabakiak gehien ziranera makurtzen ziran.

Ez dugu bost eun urtean gora joan beharrean malda-bera txikia egin!

Ba dago liburuxka honetan gauza jakingarri asko; danak jakin nai dituanak billa eta irakur dezala. Ala ere esan nahi nituzke bi edo iru gauz. Sozialismoarentzako erakundeak ba ziran ordurako gure errian: Erriko Etxeak jartzen zituan jan-edari guzien

prezioak. Tabernak non eta nola iriki legez mugatua zegoan; iru zeuden Tolosan 1608-an, sei 1790-an eta zazpi 1815-an. Udal-etxe berak erabakitzen zuan lan-bide bakoitzaren irabaziaz zenbatekoak izan behar zuten. Aldaketak izan ditu Tolosak uri bezela: lenengoa 1801-ean (Erretengibeleko uren sarrera itxi, ur-zuloan bete-lana egin eta 1815-an Rondilla kalea egin zioten gainean; gaurko Gorosabel kalea. Ordurarte Tolosako erria ugarte bat izan zan. Gaurko bi auzo: Aldaba eta Bedaio, ez ziran bereak, gero erantziak izan ziran. Tolosari erantzita egondako erriak 24-raiño iritxi ziran denbora batean, eta, arritzekoa!. Gipuzkoako lurretatik seitik bat Tolosa zan garai artan; guda zala-ta elkar lotuak, noski; gaur baiño gehiago zekiten gure zaharrak. Tolosak guda-erri bezela izan zuan garrantzia 1512-an galdu zuan: Naparroak ere orduko Kastillako erregearekin bat egin zuanean. Industri lanetan zein aurrera ibili zanaren berri asko ematen dituzte Zabala ta Garmendia egilleak: *burui-olak* (Igerondo, Amaro eta Otzarain batez ere) eta *paper olak* izan ziren gehienak; arma-olak (ezpatak, txitxi-ezpatak eta balestak egitekoak) ere ba ziran; meatzak, egurra eta ur-indarra eroso baizauzkan Tolosak garai artan; 1645-an ba zeuden errian soi taller; XVII-garrenean, don Manuel Labordek dion bezala, ba zegoen Kañoientzako proiektillak egiteko ola bat; XVIII-garren gizaldian, Ingalaterran arrikatza erabiltzen asi zan Tolosako industria honetan. Gu argi ibiltzen ez bagera, European zer-egitza gabe geratuko bezelatsu. Ala ere, edozeiñek ikusi ta usaindu lezaken bezela, gaurdaiño indartsu, ta zikingarri), iraundu-ta, paper industriak. Ez dakit zertarako bakarrik balio duan papera ez ote dan. Gipuzkoako politika arazoetan buru izan dugu Tolosa; kultura gaietan ere bai: Samaniego fabularia Tolosako alkate izan zala ementxe ikasi dut nik. Gipuzkoako Batzar Nagusietan Tolosak zituan, Donostiarekin batera, botorik gehienak: 35; 1799-an Tolosan jarri zan Diputazioa; liberalak irabazi zutela-ta, 1820-an Tolosa izan zan probintziko buru; gero, eta gaur arte, sindikatu arazoak ere emen asiak ziran: Arana-Goiri-ren izenean sortuak joan dan gizaldiaren azkenean.

Erljio, Ongintza, Kultura (Idiakez-Gipuzkoako lehengo ixtorigillea –Miguel Aranburu –Gipuzkoako Fueroen bilduma egin eta 1697-an irarria zan, Pablo Gorosabel, Eujenio Urroz, Arakistain; eta oraingo Lizardi, Aitzol, Orixe eta López Mendizábal eta Labaien eta Arrese eta Zabala eta beste batzuek ere aitutzen ditu Tolosan jaiok izan edo Tolosan izan diranen artean) eta Eskultura eta Pintura eta Musika eta gero beste batzuen aipamenak ere ba datoz.

Ta honetaz zerbaitxo bat esan nahi nuke.

Horrelako ixtori-liburu batek ixtori denborak noiz geratu behar luken erabakitzeak ba du, nere ustez, garrantzia. Ixtoriak ba du bere ixuri-bide edolako lege bat; ixtoriak denboraz gain geratzen joaten direnak bakarrik gogora behar ditula ematen du; ez da hau beti justizia egiña izan; justizirik gabe izen eta egintza asko allaitu zaizkigu ixtori zarretan gaurdaiño (parregarriak ere ez gutxi), eta, bestetik, etorriaren eredu bezela geratu behar zuten izakera eta izen asko utzi dituzte ixtorigille-edolako batzuek itzalean, eta askotan ganbaran, eta baita komonean ere. Ixtoria gizonak idazten baitu! Eta aulkeri hau ezagun-ezaguna ba dugu ere, ixtoriaren bereizgarriak ba dute, beintzat, ez zahartasuna, baiñan bai aintziñate bat, iraunkor danaren ikur bat bezela. Eta liburu honetan denboraren perspektibarik ez duten izen eta gertakizun batzuek ba datoz bukaeran; ez dakit honek aintziñako ixtoriaren esan-nahia pixkaren bat jeixten ez duan.

Adierazi nahi dutena hau da:

Joan dan ia amar gizaldiko ixtoria extu-extua eskala 1:1.000-ean egiña ba lego bezela sentitzen dut, eta erantzi zaion gaurkotasuna, eskala 1:1-an. Eta bi eskalak elkar jartzen ba ditugu, elkar borrokatzen dirala iruditzen zait.

Eta errespeto osoaz, baiña ikusi bezela esan behar dut nere asmoa.